

Balorezko proposamena

Gaur egungo gizartearen arazo nagusi bat jubilatuko asko bakarrik bizi eta hiltzen direla da. CSIC-en datuen arabera, Espainian 850.000 pentsiodun baino gehiago daude eta kopuru honetatik bakarrik bizi direnak %22,9a da.

Zahartzaroan bakarrik bizi izatearen ondorio nagusi bat azaltzen da egunerokoan nola moldatzea eta hori nola eragin al dien zuzenean egoera fisikoari baina batez ere, egoera mentalari eta horretarako soluzio bakarra egoitz batean sartzea da, baina agure askori ez zaie gustatzen ideia hori bere askatasun guztia galtzen dutela pentsatzen dutelako eta ez dutela ezertarako balio dena egiten dietelako.

Hori konpontzeko, 3. adineko pertsonentzako urbanizazio bat egitea pentsatu dugu, hau da, bakoitzak bere pisua izan baina zerbitsu eta baliabide asko han bertan izaten. Horrela, bere bizitzan normalean egiten duten guztia egingo dute baina behar duten guztia haien esku, adibidez, supermerkatua, okindegia, kafetegia. merkatua... Janaria egin izanez gero egin ahalko dute bere pribazitate guztiarekin eta jantokian jan izanez gero ere. Esaterako, nahi dutena egin ahalko dute guztizko askatasunarekin baina edozein laguntza edo zerbitzu behar izaterakoan hor ondoan egongo dira. Gure enpresa agureek pairatzen duten bakardadeari aurre egiteko edo ekiditzeko proiektua da.